

Abarrak

UNAI BREA

Olaeta balletak: ikusi eta ikasi

Ballets Olaeta. Amets baten koreografia. Erakusketa. Bilboko Ondare Aretoa (Maria Diaz de Haro, 11). Martxoaren 23ra arte.

PENA DA, injustizia ez esatearren, hau baino hamar orrialde lehenago hasten den erreportajearen Segundo Olaeta aipatu ez izana, itzal handiko pertsonaia baita euskal dantzaren historian. Ordain xumea izan bedi artikulu hau.

2008an, Olaeta familiak hamarkadetan bildutako ondarea utzi zion Bizkaiko Foru Aldundiari, eta horren zati bat ikusgai dago orain Bilboko Ondare Aretoan. Bisita laburra egin diot *Amets baten koreografia*-ri, ez presaka nabilelako, erakusketa ziztu bizian ikusten delako baizik, "ikus" hitzak museo batean duen ohiko esanguran. Jantzi batzuk, tipikoak zein Olaeta familiako kideek sortutakoak; agiri zaharrak, zenbait gutun oso interesgarri barne; musika tresnaren bat; eta askoz gehiagorik ez. Txukuna, dotorea, eta kontsumo azkarrekoa.

Ikusteaz gain ikasteko grina daukanak, berriz, erakusketa honetan du aukera paregabea. *Amets baten*

koreografia ez da nik uste nuen bezain ikusgarria, baina informazioz beteta dago. Dantzaren historia maite baduzu, orduak erraz joango zaizkizu hemen, dela Olaeta balletaren historia irakurtzen –aretoaren hormetan kapitulu bana–, dela ezin falta litekeen gune interaktiboan, non besteak beste argazki eder mordoak aurkituko duzun, horiek bai Olaetatarren ibilbidearen lekukotza mardula. Ondo egindako lau dokumentaletan laburbilduta ere emango dizute ibilbide horren berri, erakusketa amaierako areto txiki ilun erosoan. Hori bai, gainerakoan akatsik ez duen hizkuntz koofizialtasunak gune interaktiboan huts egiten du dezente. Pena da.

Eta pena da, injustizia ez esatearren, abenduaren 11tik zabaldira dagoen erakusketa baten berri ematea atearatu dituen. Zorionez, kasu honetan injustizia ez da hain larria, Bilbotik Baionara joango baita *Amets baten koreografia*, eta handik Gernikara. Noiz, ez dago hain argi, baina jakin badakigu Baionakoa udan izanen dela. Ordura arte.



15 joko baino gehiago

ZOO ZOROA

Irudimena eta sormena suspertzeko ezin hobea!

3-5 urte
PCrako
Jokoa

% 5eko deskontua
www.elhuyar.org/
edizioak
helbidean

www.elhuyar.org/zoozorooa
www.elhuyar.org/edizioak